

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

2422

AGINDUA, 2024ko maiatzaren 13koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasleentzako prestakuntza-jardueretarako deialdia egiten baita, Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako Prest_Gara 2024-2025 Planaren barruan.

Etengabeko prestakuntza irakasle guztien eskubidea eta betebeharra da, eta hezkuntza-administrazioen eta ikastetxeen erantzukizuna. Halaber, irakasleen prestakuntza eredu pedagogikoen etengabeko hobekuntzaren oinarria izan behar da, euskal hezkuntza-sistema osoaren ekitatean nahiz kalitatean aurrera egin eta bikaintasuna lortzeko.

Irakasleentzako prestakuntza-programak erronka bikoitza du. Alde batetik, irakasleek beren funtzioei dagozkien erantzukizunak baldintza onenetan bete ahal izateko gaitasun-profila eskuratzen laguntzea. Eta, bestetik, irakasle bakoitzaren gaitasun profesionalaren hobekuntzak, egunerokoan, ikastetxearen esparru guztietan eragitea, bereziki, ikasleen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan, hezkuntza-etapa bakoitzeko irteera-profilean definitutako gaitasunak lortu ahal izateko.

Hori kontuan hartuta, Hezkuntza Sailak unibertsitatez kanpoko irakasleen urteko prestakuntza-plana egin du. Planaren helburua da irakasleei beren gaitasun profesionala garatzera bideratutako prestakuntza-proposamenak eskaintzea, arreta berezia jarriz prestakuntza horrek, egunerokoan, ikastetxean egiten den lanean izan behar duen irismenean, hezkuntza-komunitate osoaren onerako izan dadin eta, oro har, ikasleen garapen integrala bultzatzen. Plan horren diseinuan, irakasleen iradokizunak eta balorazioak ere kontuan hartu dira.

Hori dela eta, Hezkuntza Sailak konpromisoa eta erantzukizuna eskatzen die prestakuntzan parte hartuko duten irakasleei, eskuratutako ezagutzek eragina izan dezaten ikasgeletako jardueretan eta inpaktua sor dezaten ikastetxean; hezkuntza-sistemaren kalitatea hobetu dadin.

Prestakuntza-jarduerak egiteko, Hezkuntza Sailak bere baliabideez gain hainbat entitatearen laguntza izango du; 2024-2025 ikasturtean, Prest_Gara planaren barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasleentzako banakako ikastaroen kontratazio-prozeduran esleipena jasotakoena.

Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Deialdi honen xedea da, Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako Prest_Gara 2024-2025 Planaren barruan, prestakuntza-jarduerak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko, irakasleek jarraitu beharreko prozedura ezartzea: eskaera egiteko modua, parte hartzeko bete beharreko baldintzak eta parte-hartzaileak aukeratzeko prozedura.

2. artikulua.– Prestakuntza-jarduerak.

2024-2025 ikasturterako prestakuntza-jardueren zerrenda Hezkuntza Sailaren webgunean konstantatu ahalko dute irakasleek, 2024ko maiatzaren 12tik aurrera. Prestakuntza-jarduerak bakoitzak

deskribapen-fitxa bat du, Hezigunean kontsulta daitekeena, eta fitxa bakoitzak informazio hau jasotzen du:

- Ikastaroaren izena, kodea eta entitate arduraduna; zeinek emango duen; ordu kopurua; plaza kopurua; ikastaroaren hasiera- eta amaiera-datak; non emango den, eta ordutegia.
- Irakasleen eta ikasleen gaitasunak.
- Hartzaileak eta prestakuntza-jarduera bakoitzaren berariazko betekizunak, onartzeko nahi-taez bete behar direnak.
- Programa xehatua: helburuak, edukiak, metodologia eta ebaluazioa.
- Emateko modalitatea eta jardueraren zereginak edo faseak, jarraian zehazten denaren arabera:
 - D: jarduera aurrez aurre eta eskola-orduetatik kanpo ematea.
 - H: jarduera online ematea.
 - G: txosten edo memoria bat egitea.
 - F: ikasgelan praktika bat egitea.

Ikastaro guztietan dago aurreikusita ikasgelako praktika bat egitea edo txosten edo memoria bat idaztea jarduerari buruz.

3. artikulua.– Hartzaileak.

1.– Honako hauek parte har dezakete prestakuntza-jardueretan (formakuntza jardueri etekin eta errendimendu handiena ateratzeko hurrenkera honen arabera):

a) Unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan, publikoetan edo itunpekoetan, lan egiten duten eta jardunean dauden irakasleek. Lehenengo postuan egongo dira lehentasun-hurrenkeran.

b) Hezkuntza laguntza-zerbitzuetako langileek, Irale ikastegietakoak eta Itsuen Baliabidete-gietako langileak, Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeko langileak, hizkuntza-eskola ofizialetakoak eta Hezkuntza Ikuskaritzakoak. Bigarren postuan egongo dira lehentasun-hurrenkeran, salbu eta jarduera berariaz zerbitzu horietako langileentzat bada, edo jardueran plazak gordeta badaude zerbitzu horietako langileentzat.

c) Lanbide Heziketako langileek prestakuntza-jardueretan parte hartu ahal izango dute. Hirugarren postuan egongo dira lehentasun-hurrenkeran.

2.– Hezkuntza Bereziko langile lan-kontratadunek hezkuntza-premia bereziei buruzko jardueretan parte hartu ahaliko dute, jarduera horietarako ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

3.– Ikastetxe publiko edo pribatu baimenduetan Haur Hezkuntzan (0-3 urteko zikloa) lan egiten duten irakasleek ziklo horretarako jardueretan parte hartuko dute, prestakuntza-jarduera horietan parte hartzeko zehazten diren baldintzen arabera.

4. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskaera telematikoki egingo da, Hezkuntza Saileko aplikazioan, Hezigunea atarian. Ikastetxe publikoetako nahiz itunpeko ikastetxeetako langileak sar daitezke han.

2.– Prestakuntza-jarduera batzuetan parte hartzeko beharrezkoa baldin bada titulu jakin bat izatea, atzerriko hizkuntzaren batean edo ziurtagiri jakin bat lortu izana zeinu hizkuntzan, ofizioz egiaztatuko da titulazio edo ziurtagiri hori egon badagoela eskatzailearen espedientean, Hezkuntza Sailaren langileen erregistroan.

3.– «Bideetako arriskuen prebentzioa ikasgelan. II. maila» prestakuntza-jardueran eskaera egi-tean, ofizioz egiaztatuko da eskatzaileak «Bideetako arriskuen prebentzioa ikasgelan. I. maila» prestakuntza-jardueraren ziurtagiria lortu duela, eta egon badagoela bere espedientean, Hezkuntza Sailaren langileen erregistroan.

4.– Eskatzen den titulazioa edo ziurtagiria, 2. eta 3. apartatuetan aipatzen dena, Hezkuntza Saileko langileen erregistroan aurkeztuta egon beharko da eskaera aurkezteko epea amaitzean, aintzat hartua izateko.

5.– Nahi adina prestakuntza-jarduera eska daiteke, eta eskabidean horien arteko lehen-tasun-hurrenkera ezarriko da, eskolak emateko aldi bakoitzerako. Dena den (deialdiko) emate-garaiaren arabera multzo bat osatzen duten jardueren artean bakar batean onartuko da eskatzailea; artikulua honen 6. eta 7. apartatuetan ezarritakoa izango da salbuespen bakarra.

6.– Prestakuntza-jarduera bat eskatu dutenen artean, bateraezintasun-arrazoiengatik kanpoan geratzen direnek (talde bereko beste jarduera batean onartuta egoteagatik), ikastaroan sartzea eskatu ahalko dute, baldin eta plaza hutsak geratzen badira deialdiaren behin betiko ebazpena argitaratu ondoren. Eskabidea onartzeko, justifikatu egin beharko da talde bereko jarduerak bate-ragarriak direla; hau da, jardueren egunak eta ordutegiak ez datozela bat.

7.– Eskatu ez dituzten ikastaroetan, hutsik geratu diren plazak bete nahi dituztenek aurkeztu ahal izango dute eskabidea, deialdia behin betiko ebatzi ondoren.

8.– Artikulu honetako 6. eta 7. apartatuetan aipatutako eskabideak aurkeztu diren hurrenkeraren arabera onartuko dira, hutsik dauden plazak agortu arte. Kasu horietan eskaerak Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaritzari aurkeztu beharko zaizkio Hezigunea atariaren bidez.

5. artikulua.– Eskaera egiteko epeak.

Eskaerak egiteko bi epe izango dira. Epe bakoitzean, soilik, epe (aldi) horretako prestakuntza-jar-duerarako aurkeztu ahalko dira eskaerak.

a) Lehen eskaera-epea:

– 2024ko uztailean, abuztuan, irailean eta urrian hasten diren jarduerak.

– Eskaera egiteko epea: 2024ko maiatzaren 22tik ekainaren 5era bitarte, biak barne.

b) Bigarren eskaera-epea:

– 2024ko azarotik 2025eko ekainera bitartean egiten diren jarduerak.

– Eskaera egiteko epea: 2024ko irailaren 13tik 27ra bitarte, biak barne.

6. artikulua.– Parte-hartzaileak aukeratzea.

1.– Ikastaroan sartzeko betekizun guztiak betetzen dituzten eskabideak, artikulua honen 4. apar-tatuko kanporatze-arrazoi gabeak, eranskinean ezarritako baremoen arabera baloratuko dira. Atzerriko hizkuntzen jakintza-mailaren egiaztatzea eskatzen duten hizkuntzen prestakuntza-jar-duerei dagokienez, titulazio hori kontuan hartzeko eta eskatzaileak jardueran parte hartu ahal

izateko, egiaztagiri hori interesdunaren espedientean egon beharko da, Hezkuntza Sailaren langileen erregistroan.

2.– Puntuazio-berdinketa badago, 3. artikuluko lehentasun-ordena aplikatu ondoren, eskatzaileak zerbitzuan eman duen denborari erreparatuko zaio.

3.– Prestakuntza-jardueraren batean onartuak izan eta gero arrazoirik gabe huts egiteagatik Prest_Gara 2022-2023ko eta 2023-2024ko deialdietan zigortuak izan diren eskatzaileek deialdi honetako prestakuntza-jardueretan parte hartzeko eskaera egin ahalko dute, baina, 0 puntu egokituko zaizkie aukeraketa-prozeduran (Hezkuntzako sailburuaren 2022ko martxoaren 28ko Aginduaren 8.3 artikulua araberak, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasleentzako prestakuntza-ekintzetarako deialdia egiten baita, Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako Prest_Gara 2022-2023 Planaren barruan eta Hezkuntzako sailburuaren 2023ko apirilaren 27ko Aginduaren 8.3 artikulua araberak, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasleentzako prestakuntza-ekintzetarako deialdia egiten baita, Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako Prest_Gara 2023-2024 Planaren barruan).

4.– Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko eskaerak, aukeraketa-prozeduratik baztertuta geratuko dira honako kasu hauetan:

– Eskaerak ez badu edo baditu betetzen jardueran parte hartzeko beharrezko den baldintzetako bat edo batzuk, besteak beste, prestakuntza-jarduera batzuetan eskatzen diren ziurtagiriak edo hizkuntza-tituluak izatea; baldintza horiek dagokion prestakuntza-jardueraren deskribapen-fitxan jasoko dira.

– Eskatzaileak eskatu duen ikastaroan adierazitakoa baino altuagoa den hizkuntza ziurtagiria edo maila badu atzerriko hizkuntzan, baldin eta ikastaroaren fitxan jasotzen bada hori baztertua izateko arrazoi izango dela.

5.– Baldintzak ez betetzeagatik eskaera baztertua izan bada, eskatzaileek hamar eguneko epea izango dute, behin-behineko ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, baldintzak betetzen dituztela argudiatzeko eta dagokion ikastaroko baldintza betetzen dutela egiaztatzen duen ziurtagiria edo hizkuntza-titulazioa aurkezteko; eta hala artikulua honetako 4. apartatuan zehaztutako arrazoiengatik baztertua izatea ekiditeko. Hori egiaztatzeko, aipatutakoa agindu honen 4.4 artikuluan jasotako prozedura bera jarraituta aurkeztu beharko da.

7. artikulua.– Deialdiaren ebazpena.

1.– Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariak izen ematea behin-behinean ebatziko du, eta Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuta jakinaraziko da ebazpena, plaza libreak dituzten prestakuntza-jardueren behin betiko zerrendarekin batera; horren ondoren, parte-hartzaile bakoitzak bere eskaeraren egoera ikusi ahal izango du Hezigunea atarian. Aipatutako ebazpenaren argitaratzeak jakinarazpen-ondorioak izango ditu, eta Hezigunearen bidez honako hauek kontsultatzeko aukeraren berri emango du:

– Eskatutako prestakuntza-jarduera bakoitzaren behin-behineko zerrenda, eskaera bakoitzaren egoera adieraziko duena (onartua, erreserban eta baztertua, baztertzeko arrazoa aipatuta); eskaera egin dutenek beren egoera ikusi ahalko dute.

Ikastaroetara onartutako pertsonen behin-behineko zerrendak 2024ko ekainaren 7an jakinaraziko dira Hezkuntza Sailaren webgunean eta Hezigunean kontsultatu ahalko dira, lehen eskaera-eperako; eta 2024ko urriaren 2an, berriz, bigarren eskaera-eperako.

2.– Interesdunek, alegazioak egin edo parte hartzeari uko egin nahi izanez gero, 2024ko ekainaren 21era arte izango dute, lehen eskaera-eperako, eta 2024ko urriaren 16ra arte, bigarren eskaera-eperako.

3.– Behin alegazioak egiteko epea amaituta, aurkeztutako alegazioak aurkeztuta, Ikaskuntza-aren eta Hezkuntza Berrikuntza-aren zuzendariak izen ematea behin betiko ebatziko du. Ebazpen hori Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuta jakinaraziko da, plaza libreak dituzten prestakuntza-jardueren behin betiko zerrendarekin batera, eta parte-hartzaile bakoitzak bere eskaeraren egoera ikusi ahal izango du Hezigunea atarian. Argitalpen horrek jakinarazpen-ondorioak izango ditu, eta Hezigunearen bidez hauek kontsultatzeko aukera jakinaraziko du:

Eskatutako jardueraren zerrenda eta eskaeren egoera:

a) Onartua: ikastaroan plaza izatea.

b) Erreserban: ikastaroan parte hartzeko baldintzak bete arren, lehentasun-maila berarekin, esleitutako azken plazadunak baino puntuazio txikiagoa izateagatik plaza ez lortzea.

c) Baztertua: deialdiko edo ikastaroan parte hartzeko baldintzak ez betetzeagatik, edo aldi horretan bertan beste ikastaro baterako onartuak izateagatik bateraezintasun-egoeragatik ikastarotik kanpo geratzea. Honako hauek dira baztertzeko arrazoien kodeak:

C: langilea jardunean ez aritzea.

I: bateraezintasuna beste ikastaro batekin (garai berean emango den beste jarduera baterako onartua izateagatik).

K: ez da betetzen prestakuntza-jardueran parte hartzeko baldintza zehatz bat.

L: ikastaroa ezeztatu egin da.

H: eskatzaileak uko egin dio.

T: atzerriko hizkuntzarekin lotuta, ez da betetzen atzerriko hizkuntzan eskatzen den maila egiaztatzeko baldintza.

Halaber, ebazpenaren jakinarazpenarekin batera, bertan behera geratu diren prestakuntza-jardueren behin-betiko zerrenda argitaratuko da; onartutako eskaeren gutxieneko ratioa ez betetzeagatik (gutxienez 6 plaza, hizkuntza-ikastaroetan, eta gutxienez 8 plaza, gainerako ikastaroetan). Hori ere, Hezkuntza Sailaren atarian.

4.– Behin betiko ebazpenaren kontra, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote Hezkuntzako sailburuordeari, ebazpena Hezkuntza Sailaren webgunean jakinarazi eta hila-beteko epean, Egoitza Elektronikoan eskuragarri dagoen Erregistro Elektroniko Orokorren bidez edo Zuzenean zerbitzuko bulegoetan bertan. Edonola ere, enplegatu publikoek bitarteko elektrokien bidez aurkeztu beharko dute.

5.– Deialdi honetan araututako prozedura ebazteko eta jakinarazteko, hiru hilabeteko epea dago, gehienez ere, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunetik hasita. Epe hori igaro ondoren ez bada ebazpenik jakinarazi, interesdunek ulertu beharko dute eskaera ezetsi dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, hargatik eragotzi gabe lege horrek Administrazioari berariaz ebazteko ezartzen dio betebeharra.

8. artikulua.– Parte hartzeko baldintzak.

1.– Prestakuntza-jardueran parte hartzeak parte hartzaileak behartzen ditu eskuratutako ezagutzak praktikan jartzeko, eta ikastetxean eta ikasgelan egiten duten eguneroko lanean aplikatzeko, konpromisoa eta ardura hartzera. Hortaz, atzerriko hizkuntzetan espezialistak ez diren irakasleek atzerriko hizkuntzetako prestakuntza jasotzean beren asmoa izan beharko da arloko edukiak hirugarren hizkuntza batean emateko behar den gaitasuna lortzea.

2.– Behin betiko zerrendak argitaratu ondoren, soilik, arrazoi justifikatuak badaude onartuko da prestakuntza-jardueran parte hartzeari uko egitea; adibidez, aldi baterako ezintasun-egoeretan edo ustekabeko lan-egoeraren kasuan. Uko egiteko jakinarazpena Hezigunea atariaren bidez bidali beharko da, prestakuntza-jarduera hasi aurretik; uko egitea justifikatzen duen gertaera jazo ondoren, ahal bezain laster, eta, hala badagokio, uko egite eskaerari hori justifikatzeko dokumentua erantsi beharko zaio.

3.– Onartutakoek justifikaziorik gabe uko egiten badute edo prestakuntza-jardueraren saioetara agertzen ez badira (8.8 artikuluan ezarritako mugen baitan) zigorra jasoko dute; hau da, hurrengo bi edizioetan (2025-2026 eta 2026-2027) 0 puntu izango dituzte Prest_Gara planaren barruan antolatutako prestakuntza jardueren, izen emate eskaeren, baremazioetan. Eta justifikatu gabeko uko-egitetzat hartuko da aurrez jakinarazi gabe eta inolako arrazoirik frogatu gabe saioetara ez agertzea.

4.– Onartuek uko egiten badiete edo saioetara agertzen ez badira, hutsik geratzen diren plazak betetzeko erreserba-zerrendako pertsonengana joko da, horiek zerrendan duten hurrenkeraren arabera; parte hartzeko aukera beraiek jakinarazpenetarako zehaztutako posta elektronikoa erabilita eskainiko zaie. Oro har, ez dira hutsik dauden plazak beteko, behin prestakuntza-jardueraren bigarren saioa eman ondoren. Nolanahi ere, salbuespenak egin daitezke, baldin eta jarduerak iraupen luzea badu, ez bada aurrez aurreko prestakuntza, edo salbuespena egitea baimen dezaiketen beste baldintza batzuk tarteko.

5.– Atzerriko hizkuntzekin lotutako prestakuntza-jardueretan, hasi aurretik, erakunde arduradunak hasierako ebaluazio-proba bat egin ahal izango die onartutako pertsonari. Eskatzailearen maila ez badator bat ikastaroaren hasierako diseinuarekin, erakundeak Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaritzari jakinarazi beharko dio. Eta entzunaldi-izapidea egin ondoren, plaza hori erreserban dagoen beste eskatzaile batek betetzea erabaki ahal izango da.

6.– Parte-hartzaileei ez zaie inolako diru-kopururik ordainduko lekualdatze-gastuengatik edo Prest_Garaplaneko prestakuntza-jardueretan parte hartzearekin lotutako inolako kontzeptuengatik.

7.– Parte-hartzaileak behartuta daude onartuak izan diren prestakuntza-jardueran programatutako fase eta zeregin guztiak gauzatzera, bai eta 2. artikuluan aipatutako ikasgelako praktika edo txostena edo memoria egitera. Era berean, ikastaroa amaitu ondoren eta 2025eko uztailaren 31 baino lehen, Hezigunea atarian horretarako ezarritako den prestakuntza-jardueraren inkesta bete beharko dute. Bestela, parte-hartzailea ez da gai izango, eta prestakuntza-jarduera ez zaio ziurtatuko.

8.– Gai izateko, prestakuntza-jardueretan parte hartzen dutenek, gutxienez, jarduera-orduen % 80ra joan behar dute (modalitate presentziala edo mistoa dutenean), zeregin guztiak egin beharko dituzte, proiektu, txosten edo memoria bat entregatu beharko dute, eta balorazio-fitxa bete beharko dute, hala ezarrita baldin badago. Prestakuntza-jardueretan parte hartu duenak hura gaituz gero, hala jasoko da Hezkuntza Saileko Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren jardueren datu-basean. Gai izan badira, irakasleek ziurtagiria ikusi eta inprimatu ahal izango dute,

Hezigunea atariaren prestakuntza-atalean sartuta; gai ez badira, berriz, ez dute inolako ziurtagirik lortuko, onartuak izan diren prestakuntza-jardueran.

9. artikulua.– Prestakuntza-jardueren jarraipena.

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaritzari dagokio prestakuntza-jardueren jarraipena eta ebaluazioa egitea. Horretarako, behar diren jarraibideak eman ditzake, eta Berritze-gune edo Hezkuntzarako Laguntzeko Zentroen laguntza eska dezake.

10. artikulua.– Datuen babesa, oinarrizko informazioa.

Datu pertsonalak «Irakasleen Prestakuntza» izeneko tratamendu-jardueran tratatu eta sartuko dira.

Arduraduna: Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: irakasleak prestatzeko jarduerak. Irakasleen hizkuntza-gaikuntza, Irale programa. EAEko unibertsitatez kanpoko irakasleen prestakuntza hobetzeko jardueretan parte hartzea (Prest_Gara Plana). Jardueren jarraipena.

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa zaio tratamenduaren arduradunari interes publikoaren izenean edo botere publikoak erabiliz egindako misio bat betetzeko.

Hartzaileak: Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk. Euskaltegiak, buletina, HABE.

Eskubideak: datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko, baita informazio gehigarrian jasotzen diren beste batzuk ere.

Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza gure web orrian kontsulta dezakezu: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/050400-capa2-eu.shtml>

Araudia: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES> 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek ondorioak izango ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango diote interesdunek Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 13a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

ERANSKINA

BAREMO OROKORRA

A) Egoera administratiboa	5 puntu, gehienez
1.– Karrerako funtzionarioa edo ikastetxe publikoren batean lan-kontratu mugagabea duen langilea/ Ikastetxe pribatu itunduren batean lan-kontratu mugagabea duen langilea.	4 puntu
2.– Bitarteko funtzionarioa edo ikastetxe publikoren batean aldi baterako lan-kontratua duen langilea/ Ikastetxe pribatu itunduren batean aldi baterako lan-kontratua duen langilea.	2 puntu
3.– Ezabatutako unitateetako irakasleak.	puntu 1
B) Eskarmentu profesionala	5 puntu, gehienez
0,5 puntu urteko, 0,042 puntu hileko eta 0,0014 puntu eguneko. <u>Matrikulatzeko lehen epea:</u> Hezkuntzan emandako zerbitzuak kontatuko dira, epe honen barruan: 2024ko maiatzaren 31 arte (egun hori barne).	
<u>Matrikulatzeko bigarren epea:</u> Hezkuntzan emandako zerbitzuak kontatuko dira, epe honen barruan: 2024ko irailaren 27 arte (egun hori barne).	
Guztira, gehienez.	10 puntu

Sare itunduko ikastetxe pribatuetan diharduten langile lan-kontratudunei eta Hezkuntza Sailaren mendekoak ez diren ikastetxe publikoetako irakasleei % 50 murriztuko zaie baremoan adierazitako A) eta B) apartatuak aplikatuta kalkulaturako puntuazioa.